

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteazkena, 2011ko azaroaren 9a. VIII. urtea. 2.304. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Alex Mujika Sukaldaria

«Gaurko gazteek jaki modernoak hobeto prestatzen dituzte betikoak baino»

Leitzarrak Nafarroako Kazuelatxo eta Ardoaren Astean lehen saria eskuratu du tripakiak eta onddo fideua nahasten dituen plateragatik ◦6



Iruñeko La cocina de Alex Mujikan aritzen da 2009. urtetik. TTIPA TTAPA



M. SARRIENENA

→ **Tolosaldeko 30 enpresatik gora, kaltetuta.** Uholdeen kaltetuek arreta bulegoa izango dute Tolosako plaza Zaharrean. Era berean, eskualdeko bizilagunek ere Tolosaldea Garatzenera jo dezakete informazio bila. Atzo Tolosan, 50 bat kaltetu bildu ziren kalte ordainak jasotzeko jarraitu beharreko urratsak ezagutzeko. ◦4

Gaur hasiko da Bonbereneak antolatutako Literatura & Art astea

Gaur Leire Bilbaok 'Scanner' aurkeztuko du, bihar ilunabar literarioa egingo dute, eta asteburuan emanaldi bereziak izango dira ◦2

Bittor Rodriguez
EHUko Nutrizio irakaslea

«Esnea da naturak diseinatu duen elikagai bakarra»

'Esnea, elikagai osoa' hitzaldia eskainiko du bihar 19:00etan, Tolosako batzar aretoan

Elkarrizketa ◦3

Larunbateko kontzertuekin hasiko da Anoetako Kultur eta Kirol Astea

Mendeku Itxua eta Jostion taldeek joko dute gaztetxean 23:00etatik aurrera; hilaren 19a bitarte ekitaldi ugari izango dituzte herrian ◦5



FUNERARIA
VASCONGADA
EHORZKETAK
Kondeko aldapa, 5
www.funerariavascongada.com



Gertu...

TOLOSAKO
HILETA ZERBITZUAK
BETLATOKI BULABEA

24 H..

943 670 040



Beste askoren artean, Leire Bilbao eta Yolanda Arrietak parte hartuko dute Literatura & Art astean. HITZA

Literatura herritarrei zabaldu nahi die Bonbereneak, Literatura & Art astearekin

‘Scanner’ liburuaren aurkezpenarekin hasi, eta larunbatean amaituko da Errima Gauarekin

Itzea Urkizu

Literaturaren mundua jendeari zabaltzeko helburuarekin, Literatura & Art astea antolatatu dute

Bonberenean. Gaur hasi, eta larunbatera bitarteko egitaraua osatu dute, eta liburu aurkezpenez gain, poema musikatua nahiz inprobisazioa lantzen duten kontzertuak ere izango dira.

Bonbereneako Txoan Ormazabalek azaldu duenez, «Bonberenea musikatik hasi zen bere ekimen nagusiak antolatzen, eta gero beste kultur esparru batzuetara zabaldu zen». Honen aurrean, eta «literatura eta irakurzale-

tasuna hain zabaldua daudenez, literatura ere landu behar genuela pentsatu genuen», dio Ormazabalek. Kulturaren beste adar bat jorratzeko asmoz, iaz hasi ziren, beraz, Literatura & Art astearekin.

Bonberenea antolatzailerak den arren, beste eragile batzuekin elkarlanean aritzen dira, eta saio eta ekitaldiak antolatzeko baliabideak eskaintzen dizkiete. 111 Akademia, Bergarako Idazle Es-

kola eta Literatur Eskola dira eragile hauek, eta gaurtik igandera bitarteko jardueretan parte hartuko dute modu batera edo beste-
ra.

Leire Bilbaoen ‘Scanner’

Gaur, 19:00etan, Leire Bilbao ondarroarrak *Scanner* izeneko bere poema liburuaren aurkeztuko du. 111 Akademia aurkezpena antolatzen lagundu die tolosarrei; irakurle talde bat dira, eta profesionalak ez diren arren, liburuak irakurri eta kritiko lanak egiten dituzte.

Susa argialetxearekin kalera-tutako liburuaren aurkezpena da Leire Bilbaoen *Scanner*, eta poema liburuaren. Liburuaren egitekoan eskaner baten lana egin du Bilbao, barrura begiratuz, eta hori azalerraz; horregatik eman dio izen hori lanari.

Ilunabar literarioa

Bihar, 19:00etatik aurrera, Ilunabar literarioa izango da Bonberenean. Bergarako Idazle eskolaren laguntzaz izango da ekitaldia. Idazle eskola honek, urte osoan zehar, halako bilkura batzuk egiten ditu hainbat lekutan: idazle eskolako irakasle eta ikasleez gain, bertaraten diren ere parte hartzen dute, eta bilkura haue-tan guztien testuak irakurtzen dituzte. Horrela beraz, «norberak bere sormen lanak eman ditzake, bertan irakurtzeko», Txoan Ormazabalek azaldu duenez. Ilunabar literarioa, gainera, musikaz lagundua izango da.

‘Martin Larralde’ ostiralean

Bonberenean, Bonberenea Literaturart sailaren barruko lehen diska-liburuaren argitaratu berri du.

Martin Larralde du izenburua, eta Eneko Barberena eta Mikel Ocea arrasatearren sormen lana da. 40 poemaz osatutako liburu da, eta horietatik 11 musikatua dira.

Ostiralean, 22:30ean, liburuaren aurkezpena izango da, eta diska-liburuak poesia eta musika uz-tartzen dituen, emanaldia kontzertu formatuan egingo dutela azaldu du Txoan Ormazabalek.

Barne irudiaren bilakaera

Larunbatean, 10:00etatik 14:00etara bitarte, literatur eskola izango da Bonberenean. Yolanda Arrietak idazlearekin. Literatur Eskolak azaroko bilkura Bonberenean egingo du, eta beraz, elkarlanean antolatu dute jardue-
ra.

Arrietak *Barne irudiaren bilakaera*, *ahozkotik ilustraturatu* izeneko saioa eskainiko du, eta idazleak berak moldatuko du ekitaldia. Hala ere, Txoan Ormazabalek «olerkia, koplak, ipuina eta anzerkiaren bueltan» ibiliko dela azaldu du. Amaite ondoren, 14:00etan, bazkaria izango da.

Errimak larunbat gauerako

Larunbat gauerako, azkenik, Bonberenean asteroko kontzertuak antolatu ditu. Aste honetan, ordea, oholtzara igoko diren musikariek nolabaiteko lotura izango dute inprobisazioarekin eta literaturarekin Errima Gaua izenpean.

Rap eta reggae kantariak ariko dira 22:30etik aurrera. Literatura & Art astea biribiltzeko. Horrela beraz, bertaratuek Bad Sound System, Kodigo Norte eta Rude taldeez gozatzeko aukera izango dute.

→ Laburrak

Drogenpeketasunari buruzko hitzaldia, Orixen

GIZARTEA › Gaur, 18:00etan, *Drogenpeketasunaren prebentzioa* hitzaldia izango da Orixen institutuan. Izar Arregi psikologoak eskainiko du hitzaldia, eta euskaraz izango da, ikastetxe Gorosabel liburutegian.

1971. urtean jaiotako tolosarren bazkaria

GIZARTEA › Datorren azaroaren 19an, 1971. urtean jaiotako bazkaria antolatu dute. Tolosan jaio, ikasi edo parrandan ibili direnei ireki diete deialdia. 13:00etan Trianguloan poteo-arekin hasiko dira, eta 14:00etan bazkaria izango da Kasino elkartearen. Izena hilaren 16rako eman behar da, eta 60 euro sartu behar dira Kutxako 2101 004318 0012906772 kontuan.

50. urteurrena ospatuko du Peña Butanok, ostiralean

Elkarteko kide zenduen omenezko meza eta bazkaria izango dira ekitaldirik nabarmenenak

I. Urkizu

Elkartearen 50. urteurrena ospatzeko, Peña Butano elkarteak ospakizuna egingo du datorren ostiralean, 2011ko azaroaren 11 delako probestuz.

Goizean goiz hasiko dute eguna, eta 09:00etan meza izango dute Santa Maria elizan, zendutako bazkideen alde. Mezaren ondoren, poteoa egingo dute herrian barrena, eta bazkari legearekin biribilduko dute Peña Butanoren eguna.

Peña Butano sortu zen garaian, Santa Maria kalean zuen egoitza,

Aranzabetarren *Carboneria La Puntual*-en lokalean. Era berean, Peña Butanoko kideak berak izan ziren, Iñauteri-txikietan *Náufragos* izenarekin, zekoroketa atera zuten azkenak.

‘Txapela nork hobeto jantzi’

Urteroko moduan, babarrunaren astearekin batera, Txinparta elkarteak hamahirugarrenez anto-

latuko du aurten, *Txapela nork hobeto jantzi* izeneko lehiaketa.

Datorren azaroaren 19an izango da, 12:00etan, Txinparta elkarteak Errementari kaleko 32. zenbakian duen egoitzan. Lehen hiru sailkatuek txapelaz gain, saria dirutan ere jasoko dute. Izen-ematea doakoa izango da, eta 699 16 92 43 telefonoan, edo egunean bertan egin daiteke.

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Peña Butanoko kideak. KUIS

Bittor Rodriguez • EHUko Nutrizio irakaslea

«Bularretik hartzen dugun esnearekin erlazionatzen dugu zapore gozoa»

Imanol Garcia

Euskadiko Frisoi Federakuntzak eta Gipuzkoako Frisoi Elkarteak hitzaldia antolatu dute esneari buruz, bihar, Tolosako batzar aretoan, 19:00etan. Bittor Rodriguez (Bergara, Gipuzkoa, 1974) EHUko Farmazia Fakultateko Nutrizio irakaslea emango du solasaldia, *Esnea, elikagai osoa* izenburupean. Joan den urtean, aurreneko aldiz, esneak osasunarengan duen eraginaren inguruan hitzaldia antolatu zuten. «Harek izan zuten arrakastaren ondoren, aurtien ere beste hitzaldi bat antolatzeari erabaki dugun», azaldu dute antolatzaileek.

Hitzaldiaren izenburuak adierazten duenez, esnearen balio nutrizionalei buruz ariko zara, besteak beste.

Hori hitzaldian esango dut, baina gauza berririk ez dagoenez horren inguruan, badaude beste pisuzko arrazoiak esnea elikagai osoa dela argudiatzeko.

Eta zeintzuk dira horiek?

Besteak beste, bere jatorria; hau da, naturala dela. Definizioz, elikagaia den bakarra da. Kontuan hartzen badugu gizakiak bere dietan dituen beste elikagai guztiak, naturan badute funtzio bat zehazki elikatzea ez dena. Adibidez, hazi bat edo zereal bat: landare bat ematea da bere funtzioa. Edo animaliak: elikadura katean badute nolabait esateko, funtzio bat, baina bere berezko funtzioa ez da jana izatea. Esnea da naturak diseinatu duen elikagai bakarra. Bere funtzio bakarra da ugaztunen kumeak elikatzea, hauek behar handiak dituztenean, bere sistema biologikoa oraindik garratu gabe dutenean, eta gainera elikagai eskusiboa da. Esnearen balio nutrizionala izango denaren inguruan pistak ematen dizkigu horrek.

Eta hori esnearen osaketan nabaritzen da?

Bai, bere osaketan nabaritzen da,



HITZA

baina ez bakarrik bere osagaietan, baita hauen egituraren ere. Oso liserigarriak dira, eta batak besteren aprobetxamendua hobetu egiten du. Esaterako, D bitamina eta laktosa azukreak kaltzioaren absorsioa errazten dute.

Ugaztunak munduarekin harremanetan jartzeko modu bat da esnea?

Horren inguruko teoria bat bada. Horren inguruko teoria bat bada. Edoskitzaroa luzaro izaten da

eta gure bizitzako lehenengo hila-beteetan hori bakarrik hartzen dugu. Argi dago lehendabizi plazer sentazio bat ematen digula. Ume batek bularrean hartzen duen lasaitasuna izugarria da. Endorfinen sekrezioarekin zerkusia du, lasaitu egiten du, eta zapore gozoa horrekin erlazionatzen dugu. Izan ere, gero elikadura osagarria sartzen denean,

bosgarren edo seigarren hilabeteetatik aurrera, zapore berriak erakutsi behar izaten zaizkio umeari. Zapore berriak ikasiko ditugu eta traumatikoa izango da ikasketa hori, ez bakarrik gaztetan, heldua zarenean ere bai. Inori ez zaio gustatu seguraski edan zuten lehenengo garagardoa edo ardoa, baina gero sibirita bihurtzen gara arlo horretan, ikasten joaten garelako.

Beste ugaztunen esnea hartzea kritikatzan duten iritziak ere badaude. Zer diozu horien inguruan?

Batez ere animalien babesa helburu duten elkarte askok dituzte iritzi horiek. Esaten dute gizakia dela animalia bakarra, esnea edaten duena edoskitzaroa eta gero. Esan dezakegu ez dagoela uste zen bezain harreman gogorra esnea, kaltzioa eta hezurren dentsitatearen artean 30 urtetatik aurrera, hau da, hezurrik itxi egin direnetik aurrera. Baina 30 urte egin arte, esnea edatea, adibidez, erlazionatuta dago hezurren osasunarekin. Zientifikoki frogatuta dago 30 urtetik arazo, adibidez, baditu onurak arazo kardiobaskularretan. Arrazoiak bere ekarpen nutritiboa da. Munduan ez dago elikadura eta osasun erakunde zientifikorik esnea eguneroko edatea gomendatzen ez duena.

Foru Aldundiak datorren urteko aurrekontuen berri emango du, gaur, Tolosan

Topic-en izango da bilera, 19:00etan; besteak beste, Martin Garitano diputatu nagusia egongo da

I. Garcia

Gipuzkoako Foru Aldundiak 2012ko aurrekontu proiektua gizaritari ezagutarazteko kanpainan martxan jarri du *Kontuak garbi, Gipuzkoa berri baterantz* lelopean. Horretarako, Martin Garitano diputatu nagusia buru dela hainbat diputatu, zuzendari eta batzarkide Gipuzkoako eskualde guztietan egongo dira. Herriar guztiek bileretan parte hartzeko aukera izango dutela azaldu dute. Tolosan izango da bilera horietako bat, gaur, Topic-en, 19:00etan.

Foru Aldunditik diotenez, «legigintzaldi honetan aldundiak gipuzkoarrekin konpartitu nahi ditu aurrekontuak, haiekin eraike, eta lehenengo urratsa informatzea eta inplikatzeko izango da». Prozesu hori «datozen urteetan parte hartzeko aurrekontuak egiteko ernamuina» dela diote.

Larramendi auzoari buruzko PSE-EEren eta EAJren arrazoiak ez direla zuzenak dio udalak

Bilduk eta Aralarrek diote bizilagun guztiek, zaharrek eta berriek, dutela erabakitze eskubidea

I. Garcia

Bilduk eta Aralarrek osatutako Tolosako udal gobernua Larramendi kaleko urbanizazioaz EAJ eta PSE-EE alderdiek zabalduzako «arrazoi ez zuzenak» erantzun die. Lau puntu zehaztu dituzte erantzunean, eta horietako batean Larramendi kaleko urbanizazioak «bizilagun zaharrei eta berriei» eragiten diela eta biek dute la «eskubidea iritzia emateko eta aukera teknikoaren artean onenari buruz erabakitze», diote.

Hain justu, udal gobernua azaldu duenez, beste bi alderdiek urbanizazioaren finantzaketari buruz emandako «arrazoi ez zuzen» horietatik honako ondorioa atera daiteke: «Auzoko bizilagun berriek lehendik dauden bizilagunek baino zilegitasun handiagoa daukate erabakiren bat hartzeko orduan; eta ondorioz, berorien artean zatiketa sortzea».

Bilduk eta Aralarrek gainera izan dutenez, «egia zera da, urbanizazioa lurzoruaren jabeen kar-

gura doala. 'Urbanizatutako' lurzoruaren balioa etxebizitzaren kopuruak eta haien ezaugarriek zehazten dute. Eta 'urbanizazio kargen' arabera aldatuko du bere balioa lurzoru 'gordinak' edo urbanizatu gabeak».

Beste puntu batean, EAJk eta PSE-EEK bere idatzietan iruzurra aipatzea kritikatzan du udal gobernuak: «Ez al da 'iruzur' handiagoa 8 solairuko eraikin bat altxatzea azken 20 eta 30 urteotan jendea bizi den 5 solairuko etxean aurrean, bistak, eguzkia, aireztapena, eta abar kenduz?». Udalak gaineratu duenez, «herriar horiei kontsultatu gabe» egindako proiektua izan zen. Eremuko urriek urbanizazioaz «gauza bera» esan daitekeela diote: «Denak ukitzen ditu, bizilagun zaharrek eta berriak, eta denak berdin».

«Hausnartzeko» eskatu dute

Udal gobernua azaldu duenez, «EAJk eta PSE-EEK gauza asko dauzkate hausnartzeko Voith-Gorostidi-ren gaietatik». EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren epaia esandakoa ekartzen dute gogora: «Planeamendu ilegal bat onartu zutela, jakinda ez zela legezkoa, promotore batek egin zituzten legeak baitmentzen zituen baino etxebizitza gehiago. Orain, argumentu okerrak eta *ad hoc*

sortuak erabiliz, gaia desbideratu egin nahi dute».

Udalaren proposamena ez dela arrazoi politikoek bultzatuta, arrazoi teknikoek baizik, dio: «Auzoko batzarrean esan genuen bezala, gai honetaz txostena egin zuten udaleko teknikariek eta diptuzioek honelaxe kalifikatu zuten erreperidea lurperatzeko proiektua: 'Ulertezina eta ezin justifikatuzkoa'. Txosten horiek udaletxean ikusgai daudela gaineratu dute».

Udal gobernuaren ustez, erreperidea lurperatzea «akats» bat da eta hori egin baino lehen «beste soluziobide bat» proposatu nahi dute. «Iruditzen zaigu horrek hobe egingo duela hasierako proiektua», azaldu dute.

Azken puntuan, «arduraz eta gardentasunarekin» ari direla la-

nean esan dute, eta «demokrazia-aren arauak erabat errespetatu». Auzotarren gehiengoak hartzen duen erabakia errespetatzeko konpromisoa berretsi du udal gobernuak, «nahiz eta ez onartu gure proposamena». Izan ere, bizilagunen gehiengoak duen pertzepzioarekin «okerrak» egon daitezkeela esan dute. «Bitartean, EAJ eta PSE-EEK kargu politikoei eskatzen diegu arduraz jokatzeko eta oztoporik ez jartzeko udalak bultzatutako parte hartze prozesuari», gaineratu dute.

Udal gobernuaren konbentziturata dago Larramendi auzoko bizilagunen gehiengoak «fede onez» parte hartuko duela eztabaida eta erabakitze prozesu batean, «helburu bakar batekin: denon artean auzo eta Tolosa hobeto egin daiteke».

Iragarki laburrak

ALOKAGAI

■ **Etxebizitza.** Tolosa erdialdean, altzariz guztiz hornitutako etxebizitza alokatzen da; bi logela, komuna eta egongela ditu eta bizitzera sartzeko moduan dago. Hileko kuota 600 eurokoa da. Deitu: 619 645256.

LANA

■ **Emakume euskalduna.**

Etxeko lanak egin eta edadeko pertsonak zaintzeko, emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Interesatuak, deitu 655 74 71 59 telefono zenbakira.



Kalte ordainak jaso ahal izango dira kontsorzioetik. Irudian Ibarrako izaskun auzoan izandako istripua. HITZA

Eskualdeko uholdeen kaltetuek arreta bulego bat izango dute Tolosan

Tolosako herritarrek arreta bulego bat zabalik izango dute egunero, plaza Zaharrean, 08:00etatik 15:00etara

M. Ugartemendia

Uholdeek herritar eta enpresa ugari kaltetu dituzte, eta behin garbiketa lanak egin ondoren, kalteak baloratu eta laguntzak eskuratzeko beharrezko tramiteak egiteko garaia da. Horretarako hainbat udalek beharrezko informazioa emateaz gain, Tolosaldea Garatzenek ere bulego tekniko bat irekiko du kaltetuei laguntza emateko asmoz.

Laguntza hauek antolatzeke asmoz eta eman beharrezko pausuak zeintzuk diren jakiteko, astelehen arratsaldean Eusko Jaurlaritzako, Gipuzkoako Diputazioeko eta uholdeen eragina jasan duten herrietako udalek bilera bat egin zuten. Bertako Tolosaldeko hainbat alkate izan ziren.

Uholdeetan kaltetuak izan diren herritarrek eta enpresek hainbat urrats eman beharko dituzte kontsorzioaren kalte ordai-

nak jaso ahal izateko. Atzo eman beharrezko urrats horiek zeintzuk zeintzuk diren azaldu zuen Martin Orbana, kontsorzioeko arduradunak, Tolosako pleno aretoan. Izan ere, Tolosako udalak atzo bilera bat deitu zuen Tolosako enpresa kaltetuei honen inguruko azalpenak emateko. Tolosan, soilik, hogeita hamar enpresatik gora izan dira kaltetuak, eta horren isla zen pleno aretoa: berrogeita hamar lagun inguru elkartu ziren bertan. Kaltetuak izan diren eskualdeko gainerako herrietan ere herritarrei beharrezko informazioa emango zaie; Amasa-Villabonan, esate baterako, eman beharrezko pausuen inguruko

↓ Tolosaldea Garatzen

ARRETA BULEGOA

- **Arduraduna:** Ainhoa Orrantia.
- **Helbidea:** San Esteban, 20, Tolosa.
- **Helbide elektronikoa:** *kuntsumoa@tolosaldea.net*
- **Telefonoa:** 943 654501
- **Faxa:** 943 654502
- **Ordutegia:** 15:00-18:00 (astelehena/asteazkena/ostirala)

bando bat zabaldu dute. Horrez gain, eskualdeko kaltetuentzat arreta bulego bat jarri du Tolosaldea Garatzenek.

Tolosako kaltetuek beraiei zuzendutako beste bulego bat izango dute, plaza Zaharrean. Zabalik egongo da egunero 08:00etatik 15:00etara.

Kalte ordainak

Herritarrek aseguru kontsorzioaren kalte ordaina jaso ahal izateko baldintza batzuk bete behar dituzte. Lehenik eta behin argazkiak edo beste mota bateko frogak izatea beraien kalteak zeintzuk izan diren erakutsi ahal izateko. Gainera, bizitza aseguru, kalte pertsonalenzako aseguru edo istripu pertsonalen aurkako aseguru behar dute. Gainera, poliza ordaindu izanaren ordainagiria izan behar dute.

Baldintzak beteta norberak zuzenean edo aseguruaren bitartez kontsorzioarekin harremanetan jarri behar da 902 222 665 telefonon. Hauek erreferentzia zenbakia eman eta gero, peritu bat pasako da kalteen balorazioa egiteko. Honi, halaber, beharrezko dokumentazioa aurkeztu beharko zaio.

Kulturaren inguruan hausnartuz hasi dute Kultur Astea

Pasa den ostiralean hasi zen kultur asteari ingandean emango diote amaiera azokarekin eta mondeju lehiaketarekin

M. Ugartemendia Amezketan

Kabareta antzerkiarekin eman zioten hasiera aurtengo Amezketako Kultur Asteari, eta ez da amaituko igandera arte.

Astelehenean, berri, herritarrekin kulturaren inguruan hausnartuz eman zioten hasiera aste honetako ekitaldi kulturaleri.

Bi ordu inguruko hausnarketa honetan, hoguei lagunek parte hartu zuten. Bertan ariketa bartzuen bitartez herritarrek kulturari buruz orokorrean, eta Amezketako kulturari buruz zehazki, hausnartu zuten, bakarka eta taldeka. Bertan ateratako ondorio eta proposamenak udalari helaraziko dizkiete, eta herritarrei ere honen inguruko dokumentua bidaliko diete.

Oraindik, hala ere, San Martin eguna edota herritarren produktu eta eskulanen azoka dituzte aurretik. Gainera, aurten lehenengoz mondejo lehiaketa ere egingo dute azoka egunean.

↓ Kultur Astea

AZAROAK 9, GAUR

- **20:30.** *Arritzagako aurkikuntzak* hitzaldia, kultur etxean.

AZAROAK 10, BIHAR

- **20:30.** *Dolpon egin den proiektua*, Marronekin, kultur etxean.

AZAROAK 11, ETZI

San Martin eguna

- **11:00.** Meza. Ondoren, Laja eta Landakanda trikitilariak, eta Bixente eta Peña bertsolariak. Eta, San Martin eguneko bazkaria, Beartzana jatetxean.
- **13:30.** Umeen bazkaria.
- **Arratsaldean.** Txirri, murri eta

morritoston antzerkia, kultur etxean. Ondoren, umeentzat jolasak eta txokolatea.

- **1luntzean.** Patata tortila lehiaketa.
- **21:00.** Zahagi ardoa.
- **Gauean.** Poteo musikatua.

AZAROAK 12, LARUNBATA

Ugarten

- **15:30.** Mus txapelketa.
- **20:30.** Afaria Ugarteko elkar-teen.

AZAROAK 13, IGANDEA

- **10:00etatik aurrera.** Azoka, herritarren produktu eta eskulanekin.
- **11:30.** Mondejo lehiaketa.



20 lagun inguruk parte hartu zuten asteleheneko hausnarketan. HITZA



Egin HITZAren harpidedun
abenduaren 31 baino lehen, eta jaso

Bertako informazioari, bertako produktuak



MAHALA ekoizlearen **produktu sorta** hau

OPARI





hitza info

Harremanetarako:
902-82 02 01
harpidetza@hitza.info

Kultur eta Kirol Astea 2011 hilaren 12an hasi eta 19an bukatuko da

Bikotekako Herri Krosean eta Bertso Bazkarian parte hartzeko izena aurrez eman behar da

Asier Imaz Anoeta

Anoetako Kultur eta Kirol Astea 2011 ekitaldiz beterik dator. Hilaren 12tik 19ra bitarte, adin guztietako herritarrek badute non gozatu. Bi ekimenetan parte hartzeko, izena aurrez eman behar dela azaldu dute antolatzaileek.

Hilaren 19an, larunbatean, Bikotekako Kros Herrikoa korrituko da. Bertan, DBH3tik aurrerako gazte eta helduek parte hartu ahal izango dute. Bikoteak mistoak izango dira, eta 3500 metroko ibilbidea egin beharko dute. Lehen sailkatuek trofeoa irabaziko dute, eta partaide guztien artean



Iker Zubeldia hilaren 19ko bertso bazkarian egongo da. HITZA

40 euroko bost bono zozketatuko dira, herriko denda eta tabernetan erabiltzeko. Izena emateko epea hilaren 15a arte egongo da zabalik ondorengo lekuetan: ikastolan, Itzuli tabernan edo kiroldegian.

Krosa hilaren 19an izango da, 11:30etik aurrera. Lasterketa bukatu ondoren, indarrak berritze-

ko, bertso bazkaria antolatu dute anoetarrek. Alde batetik, Amaia Agirre ariko da bertan, eta bestetik, Iker Zubeldia. Kuku elkartean ospatuko den bazkaria joan nahi dutenek, txartela hilaren 14a baino lehen erosi beharko dute, igande honetan amaituko baita sarrerak erosteko epea, 20 bat euroren truke.

Udalaren jabetzako hamaika garaje erabiltzeko aukera

Enkantean parte hartu nahi dutenek, eskaera orriak hilaren 22a baino lehen aurkeztu beharko dituzte udaletxean

Erredakzioa Anoeta

Anoetako Udalaren jabetzako hamaika garaje enkantera aterako dituzte. Bigunetan aukera daitezke garajeak: Kale Berriko lurpe-

ko aparkalekuan kokatutako garaje bat, 54 urtez erabiltzeko aukera egongo da, eta Iturtzuko kaleko 2. zenbakian dagoen aparkalekuko hamar plaza, 74 urtez.

Enkantean parte hartzeko informazio gehiago nahi duenak, udaletzeko bulego orokorretara joan beharko du; udaleko web orrian sartzea ere nahikoa izango du, www.anoeta.net helbidetan.

Udaletik azaldu dutenez, eskaera aurkezteko azken eguna azaroaren 21a da.

Irudia Amasa-Villabona



ONGI ETORRI XAXI!

Xaxi ipotxa Fleming eskolan izan da. Urtero bezala, oporretako abenturak kontatu zizkien ikasleei. Udan Zarautz bisitatu du: «Hondartzan gazteluak eta surfa egin zuen, izozki goxo-goxoak jan... Zein pozik ibili den Euskal Herriko kostaldean!». Aurten ere, Xaxik euskaraz soilik ulertzen duenez, euskaraz hitz egiten saiatzeko mesedea eskatu die Fleming eskolakoiei. «Euskaraz erraz hitz egiten duenak, gehiago kostatzen zaionari lagunduz gero, guztiak elkar hobeto ulertzeko aukera izango dugu», diote eskolako arduradunek. HITZA

↓ Egitaraua

AZAROAK 12, LARUNBATA

■ **23:00etan.** Mendeku Itxua eta Jostion taldeen kontzertua gaztetxean. Sarrera: 5 euro.

AZAROAK 13, IGANDEAN

■ **10:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 17:00etara.** Hozpel kaleko lokalean, Xake Txapelketa. LH1 eta DBH2 maila bitarteko ikasleentzat.

AZAROAREN 14TIK 19RA

■ **Kiroldegiko sarreran.** Inmigratioari buruzko erakusketa: *Ni ere pertsona*. Ordutegia: astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 12:30era eta 15:00etatik 21:30era; larunbategian, 09:00etatik 13:00etara.

AZAROAK 14, ASTELEHENA

■ **18:30ean.** Liburutegian ipuin kontaketa, Kontukantoi taldearen eskutik. HH2 eta LH2 maila bitarteko umeentzat.

AZAROAK 15, ASTEARTEA

■ **19:00etan.** Mikelasagasti auditorioan, Loatzo Musika Eskolako entzunaldia.

AZAROAK 17, OSTEGUNA

■ **19:00etan.** Mikelasagasti auditorioan, Euskal Jailetako bideoaren proiektzioa. Iraupena: 30 minutu inguru.

■ **Ondoren.** Diaporama: *Himalaya inguruko ibilerak*, Asier Izagirre eta Aitor Munduateren eskutik.

AZAROAK 18, OSTIRALA

■ **22:00etan.** Mikelasagasti auditorioan antzerki emanaldia: *Baginaren bakarrizketak*.

AZAROAK 19, LARUNBATA

■ **11:30ean.** Herri krosa plazatik abiatuta. DBH 3tik aurrerako gazte eta helduentzat zuzendua dago. Izena emateko aukerak Itzuli tabernan, ikastolan edo kiroldegian (kortxoan) jarri dituzte; hilaren 15a, asteartea, bitarte.

■ **14:00etan.** Bertso bazkaria Kuku Elkartean. Bertsolariak: Amaia Agirre eta Iker Zubeldia. Sarrera 20 euro. Izena emateko bi gune jarri dituzte: Itzuli taberna eta Kuku Elkartea, hilaren 13ra bitarte.

Enrausketa zerbaitu berrin martxan!
Enrausketa libe proposatzen

PLAN PREVER PEUGEOT 2.600€ ZURE KOTXE ZAHARRARENGATIK

P-5008



TOLOSA MOTOR, S.A. PEUGEOT KONTZESIONARIOA
San Esteban auzoa, 14-A • 20400 TOLOSA • Tel.: 943 650 337 / Faxa: 943 652 938 • tolosa@tolosa.redpeugeot.com

Alex Mujika ◉ sukaldaria

Nafarroako Kazuelatxo eta Ardoaren Astean lehen saria lortu du bere tripaki eta onddo fideuarengatik; originaltasuna eta ausardia nabarmendu dute.

«Tradizionalak eta desberdinak diren hiru jaki nahastu ditut»

Iñigo Terradillos Leitza

Bere ibilbidean sari berri bat gehitu du Alex Mujika sukaldari leitzarrak. Hain zuzen ere, Nafarroako Kazuelatxo eta Ardoaren X. Astean, Ostalaritza elkarteak urrezko kategorian lehen saria eman dio tripaki eta onddo fideua plateragatik. «Oso gustura» dago sariagatik, «garrantzitsua baita, horrelakoek jendea asko erakarzen baitute».

2007an kaleratu zenuen 'Reciclaje y alta cocina' liburua saritua izan da, 2009an Nafarroako Gastronomía saria eskuratuzenuen, eta orain hau. Zersentitzen duzu?

Oso gustura nago. Oso garrantzitsua da sari hau eskuratzea, izan ere, oihartzun handia duenez, jende asko joango da lehiaketa irabazi duen jakia dastatu nahian taberna-jatetxera.

Nola joan zen lehiaketa?

37 jatetxe aurkeztu ginen. Horietatik, epaimahaiak 6 finalista aukeratu zituen lehendabizi, eta ondoren, finalisten artean nire platera aukeratu zuten.

Nolakoa da plater irabazlea?

Era tradizionala eta modernoa uztartzen dituen platera da. Bateatik, tripakiak egiten ditugu, gure amonak egiten zuen moduan, era tradizionalan. Kazuela batean olio pixka batekin baratxuria eta

tipula jartzen dut, txiki-txiki eginda. Tripakiak egosi egiten ditut elitze batean gazta apur batekin. Behin ondo egosita daudenean zartagira botatzen ditut. Etxean eginiko tomate saltsa eta ardo txuria gehitzen dut, eta tripakiei ateratako zukua ere botatzen diot. Ordu pare bat uzten dut hori guztia su epelean. Onddoei dago-kiezen, txikitu egiten ditut, eta zartagian jarri olio, baratxuria eta tipularekin. Gatza pixka bat eta perrexila bota eta hortxe uzten dut. Fideua frijitzen dut pixka bat, eta guztia nahasten dut. Bukaeran, ali-oli txuria botatzen diot azafraiarekin nahastuta, eta baita limoi txiki bat ere.

Plater honen originaltasuna, ausardia, egitura eta zapoaren arteko oreka nabarmendu dute.

Jaki tradizional batean du jatorria plater honek. Guk tripakiak, onddoak eta fideua nahastu nahi izan ditugu. Euren artean desberdinak diren hiru elementu tradizional dira. Horregatik hasi ginen probak egiten elkarren artean nahastuz. Gustatu egin zitzaigun, eta platera osatu genuen.

Lehiaketarako bereziki prestatu rikoko platera al da?

Guk egunero edukitzen dugu tabernan plater hau. Hala izan behar du, izan ere, lehiaketa irabazi eta gero, jendea gurera etorriko



TTPI-TTAPA

da plater irabazlea probatzen. Beraz, oso garrantzitsua da jende-ari egunero eskaintzea.

«Oso gustura nago; saria oso garrantzitsua da, jatetxera jende asko erakartzen baitu»

«Gaurko gazteek jaki modernoak hobeto prestatzen dituzte betiko platerak baino»

2009ko martxotik zaude Iruñeko La cocina de Alex Mujika izeneko taberna-jatetxean. Zer moduzko balantzea egiten duzu?

Gure lanaren pisu handiena jatetxeak du. Baina, tabernan ere egite dugu lan. Are gehiago pasa den urtean pintxo lehiaketa bat irabazi eta gero. Horrelakoak nabaritzen dira, jende ugari erakartzen dute. Horregatik, oso kontentu gaude. Taberna eguerdian eta

iluntzean egoten da zabalik. Bertan, kroketak edota txistorra bezalako ohikoez gain, 4-5 pintxo desberdin dastatzeko aukera ematen dugu. Normalean aurki ezin daitezkeen pintxoak dira. Horixe da gure helburua, gutxi izatea, baina desberdinak edo bakarrak.

Arlo profesionalan zein unetan zaudela esango zenuke?

Une polit batean. Gure lanbidean, sukaldaritzan etengabe ikasten egon behar duzu. Sukaldaritzaren inguruko bi liburu argitaratzea erronka izan zen, eta baita duela bi urte jatetxe honen martxa hartzea ere. Niretzat helburua beti izaten da jende gustura geratzea prestatutako jakiek.

Zuk amarengatik jaso zenuen sukaldaritzaz dakizunaren zati handi bat. Gaur egun zurea bezalako kasu asko ikusten al dituzu?

Gaurko gazteek sukaldaritzaz eskolan ikasten dute, eta oso prestatuta irtetzen direla esango nuke. Baina, aldi berean, ez dakite beti-

ko platerak oso ongi prestatzen. Esaterako, plater modernoagoak askoz hobeto prestatuko dituzte lentejak baino. Betiko plateri goxotasuna eta euren puntua ematea falta izaten zaie askotan. Horregatik, gure sukaldaritza tradizionala pixka bat galtzen ari dela uste dut.

Orain gutxitik sukaldaritza ikasketak unibertsitatean egitea posible da gurean. Sukaldaritzak inguruan duen garrantzia argi ikusten da. Baina, zergatik da gure sukaldaria hain berezia?

Euskaldunok betidanik izan dugu sukaldatzeko afizio handia. Donostia da, gainera, Euskal Herriko hiri eta herrietan afizio handiena dagoena. Elkarrekin ere hor daude. Beste lekuetan sukaldaritza ona edo oso ona topatuko duzu, baina gurea berezia da. Berezi egiten duena sukaldearekiko afizioa da. Nolabait, beste puntu bat ematen diegu betiko plater tradizionalei.

◉leitzaldea@hitza.info



sarrerak



HITZAK harpidedunentzat **2 sarrera** pare ditu

Azaroak 12 • Larunbata
20:00etan
Donostiako Ilunben

LAGUN ARO GBC
Assignia Manresa
saskibaloia partida



harpidedunak
TXOKOA hitza

Zozketan parte hartzeko deitu **943 65 56 95**

21 urteko kartzela zigor eskaria, ugazaitaren ustezko hiltzailearentzat

Hilketa eta lapurreta delituak egotzi dizkio fiskaltzak; akusazio partikularrak 30 urteko zigor eskaera egin du

Erredakzioa Berrobi

Herenegun hasi zen Berrobin 2009. urtean mazo kolpe batez ustez bere ugazaita hil zuen 32 urteko herritarren aurkako zinpeko epaiketa. Lehen saioan, hilketa leporatzen zaion gizonen hildakoa beldurtuta zegoelako kolpatu zuela adierazi zuen. Fiskaltzak, bere aldetik, 21 urteko

kartzela zigor eskaria egin du, hilketa eta lapurreta egotzita.

Haren esanetan, bi tiro jotzearekin mehatxatu zuen ugazaitak, eta mehatxuak hainbeste beldurtu zuenez, «eskura zuen lehenengo gauzarekin jo zuen, hil arte». Halaber, gertatutakoarekin, «damututa» dagoela adierazi zuen herenegun, Gipuzkoako Auzitegian.

Fiskaltzak 21 urteko kartzela zigorra eskatu du 32 urteko gizonarentzat, hilketa eta lapurreta delituak egotzita. Biktimaren bi semeak ordezkatzeko dituen akusazio partikularrak, berriz, 30 urteko eskaera egin du, hilketaren egileak «azpikeriaz, basakeriaz

eta konfiantza abusuz» jokatu zuela uste baitute. Bestalde, inputatuaren defentsak hiru urteko kartzela zigorra eskatu du, haren ustez gertatutakoa «arduragabekeria larri baten ondorio» izan baitzen.

Inputatuak beldurra sentitu zuelako kolpatu zuela hildakoa adierazi du

Inputatuak azaroak 4tik gosegreban dagoela gehitu zuen. Ugazaita kolpatu ostean, biktimaren autoa hartu eta norabiderik gabe ekin ziola esan zuen. Frantziatik

igarota, Andorrara heldu zen, eta egun batzuk geroago atxilotu zuten, Espainiara sartzen saiatu zenean.

Atzoko saioan lekukoek deklaratu zuten. Hain zuzen ere, inputatuaren ama eta hildakoaren emazteak eta bikotearen bi semeek hartu zuten deklarazioa, baita hildakoaren lagun batek ere, hildakoa eta inputatuaren arteko erlazio «gorabeheratsua» agerian geratu zelarik.

Gaur izango da epaiketaren hirugarren saioa Gipuzkoako Auzitegian. Gaurkoan ere lekukoek jarraituko dute deklaratzeko, eta kasuaren auzitegiko medikuek ere hartuko dute hitza.

→ Laburrak

Bingo saioa gaur, Txaramako kultur etxean

LEABURU ▶ Lehenengo ohiturak berreskuratuz, eta «herritarrek hala eskatuta», bingo saioak egingo dituzte Txaramako kultur etxean asteazkenean. Lehendabiziko saioa gaur izango da, 16:30ean hasita. Udaletik herritar oro animatu dute parte hartzera.

Helduen bertso eskolaren festa, hilaren 18an

LEITZA ▶ Helduen bertso eskolak festa txiki bat antolatu du azaroaren 18rako, 10. urteurrenaren harira. 20:00etan bertso-poteoa egingo dute, Julen Zerlaila eta bertso eskolako kideekin, 21:30ean afaria, Gaztetxean, eta 22:30ean Leitzalesaka bertso desafioa. Leitzako bertso eskolatik, Etxeorde, Zili eta Luze, eta Lesakatik loar, Terre eta Josu ariko dira.

Aralartik barrena ibilaldia, larunbat honetan

LEITZA ▶ Leitzako Mendibil mendi taldeak mendi irteera antolatu du larunbat honetarako, hilaren 12rako. Hain zuzen ere, Aralartik barrena egingo dute zeharkaldia, Lizarrustin hasi eta Larraitzen bukatuz, eta tartean Txindoki igoz. 5 ordu inguruko ibilaldia da, eta zailtasun maila ertainekoa. 07:30ean aterako dira autobusez Oialde paretik, eta 15:00ak aldera itzuli. Bihar izango da izena emateko azken eguna. Astiz edo Maimur liburudendan egin daiteke edo mendibilaurre-ra@hotmail.com-era idatziz.



Larunbateko ibilaldia. HITZA

Bizikletaz ibilaldia igandean, Arabako Izkin

Maiatza bitarte 'Askatasun bidean' lelopean antolatu dituzten ibilaldietan bigarrena da

I. Terradillos Ibarra

Iragan urriaren 23an hasitako bigarrena igande honetan emango dio jarraipena *Askatasun bidean* ekimenak. Izan ere, Ibarra Bai Euskal Herriari taldeak eta Haitzetan Raju mendi taldeak antolatuta, Arabako Izki bailaran bizikletaz eginiko ibilaldia egingo dute.

Bertara joateko igandean 09:00etan egin dute hitzordua Ibarrrako plazan. Zuzenean han hitzordua egiteko aukera ere jarri dute. Urturi herriko golf zelaiaren ondotik abiatuko dira, 10:30ean.

Antolatzaileek diotenez, «ibilaldia egiteko aukera ugari es-

kaintzen ditu bailara honek, eta norbere aukeretara egokitutako ibilbideak egin daitezke. Beraz ez dago aitzakiarik». Ohi bezala, ibilbidea amaitu ostean, mokadutxo izango dute zain.

Ibarra Bai Euskal Herriari taldeak eta Haitzetan Raju mendi taldeak Untalgari eta Lizarrako mendi taldekoak ere gonbidatu dituzte, eta baita Oargi edo Giritzia mendi taldekoak ere.

Irteera honetarako animatzen denak 652 71 58 00 telefono zenbakira hots egin beharko du izena emateko.

Hurrengoa urtarrilean

Maiatza bitarte aurreikusituzten irteeretan bigarrena izango da hau. Guztira zazpi ibilalditan zazpi lurraldeetatik igaroko dira. Datorren hilean ez da irteerarik izango, baina urtarrilean bai, Zuberora, hain zuzen. Otsailean, Bizkaira joango dira; martxoan Gipuzkoara; apirilean Lapurdira; eta maiatzean Behe Nafarroara.



izki bailaran egingo dute igandean ibilaldia bizikletaz. HITZA

Laugarren urtez jarri dute mar-txan «mendia eta inguruan ditugun lurrak ezagutzea, lurraldeatsuna sustatzea, jendearrekin hartu-emana sortzea edota kultura eta tradizio desberdinak ezagu-

etzea» helburu duen ekimena. Le-loa ere badu Ibarra mendi taldeak eta Bai Euskal Herriari antolatutako ekimenak, *Askatasun bidean*, hain zuzen.

• ibaraldea@hitza.info

◉ Hilberriak

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info



VALERIANA ITURBE JUARISTI

Intxaustiko Baleri
(Javier Etxanizen alarguna)

Atzo hil zen, 87 urte zituela.

Seme-alabak: Ima Etxaniz eta Pedro Maria Etxaniz; suhi-errainak: Pedro Larrañaga eta Ane Mujika; ahizpa Bittori eta koinatua Justo; ilobak: Xabier (+), Julen, Haritz, Peru eta Mendi, eta beste ahaide guztiak.

Hileta GAUR, ASTEAZKENA, arratsaldeko ZAZPI ETA ERDIETAN, AZKOITIKO PARROKIAN izango da.

AZKOITIA, 2011ko azaroaren 9a

Oharra: Gorpua Azkoitiko JUIINGO BEILATOKIAN egongo da.



RUFINA OTAEGI LAZKANO



Bizitza luze baten ondoren hil da, musu handi-handi batekin

Zure familia erraldoia

ZEGAMA, 2011ko azaroaren 9a

Helbidea: Arretxe baserria, Zegama



GOIZA	EURIA
ARRATSALDEA	OSKARRI
BEROENA	18°
HOTZENA	12°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info.
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarra: 687 410 118. ibarra@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko
eta Leizaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Baliarrain,
Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Hernialde, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902820201**

Agurrak



Urte askoan Eneko!

Eneko Galarraga Godoy (Villabona), Besarkada iraultzaile eta beroenak zuretzako. Maite zaituztegu!



Urte askoan Eneko!

Ikusten duzun bezala koadriila handitzen doa. Hurrengoa zurekin!
Animo eta laster arte! Maite zaitugu!



Urte askoan Eneko!

Villabonako zure zaharren koadriilaren partez zorionak.
Pote bat eta kalamarrak zure kontu! Muxu bat!

Agenda

DEIALDIAK

- **Amasa.** San Martin jaiak hasiko dira gaur. 19:00etan botako dute txupinazoa eta Martina sorginaren jaitziera egingo dute ondoren.
- **Alegia.** Azaroaren 19an Loatzo musika eskolak Xexili Eguna ospatuko du. Urtero bezala egun osoko jai antolatuko dute eta bazkarirako txartelak salgai daude gaurtik etzira bitarte. Anoeta, Alegia, Altzo, Aduna, Irura, Ibarra, Villabona eta Zizurkilgo udaletxe edo kultur etxeetan.
- **Tolosa.** 1971ean jaiotako bazkaria antolatuko dute 40 urte bete dituzten guztientzat. Azaroaren 19an Trianguloan 13:00etan elkartuko dira eta bazkaria 14:00etan bazkalduko dute Kasinoan. Joan nahi dutenek azaroak 16rako 60 euro sartu beharko dituzue Kutxan (2101 0043 18 0012906772). Informazio gehiagorako idatzi tolosa1971@gmail.com helbidera.

Programazioa

28 KANALA

GAUR

- **08:30.** Ur eta Lur. ■ **09:00.** Foofur. ■ **09:30.** Tolosaldean Gaur. ■ **10:00.** Gpuntu. ■ **10:30.** Elizondo feria. ■ **11:00.** Elizondo feria. ■ **11:30.** Tolosaldea Gaur. ■ **12:00.** Ikusmira. ■ **12:30.** HBI. ■ **13:00.** Amaigabeko istorioa. ■ **13:30.** Tolosaldean Gaur. ■ **14:00-16:00.** Abesbatza Lehiaketa. ■ **16:30.** HBI. ■ **17:15.** Amaigabeko istorioa. ■ **17:30.** Tolosaldean Gaur. ■ **18:00.** Abesbatza Lehiaketa. ■ **18:30.** (Jarraipena). ■ **19:00.** Ikusmira. ■ **19:30.** Tolosaldean Gaur. ■ **20:00.** Erosi eta ikasi. (*16:30-20:00 blokea lau ordu-ro errepikatuko dute)

AGURRAK
943-65 56 95
tolosaldean@hitza.info

urtebetetzak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

●●● agurrak

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Azpiroz, L. Amarotz auzoa, 9. Telefonoa: 943 67 51 18.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia. Telefonoa: 112.

- **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea. Telefonoa: 112

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esan eta iritzien erantzukizunik.